**BEREN JARDUERA GIZARTE ZERBITZUETAN GARATZEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK EZARTZEN DITUZTEN OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK . 2014**

*1. artikulua. Xedea*

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta jarduerak Aretxabaletako udalerrian edo eskualdean garatzen badituzte. Hala badagokio, lurralde mailakoek ere eskatu ahal izango dituzte, beren jarduerek udal-eremua gainditzen dutenean, eta eskabide zein beharrek udalerrian baliabide zehatzen hornidura eskatzen ez dutenean.

Horrez gain, beren jarduna gizarte-zerbitzuen alorrean garatu beharko dute, eta haien xedea izango da parte-hartzea sustatzea, gizarte-laneko boluntarioak bultzatzea, herritarren arteko solidaritatea, eta jarraian adierazitako talde edo kolektibotan integrazio eta gizarteratze arazoak dituzten pertsonei laguntzea: haurrak, gazteak, emakumea, ezinduak, hirugarren adina, gutxiengo etnikoak, preso ohiak, pasadizokoak eta arrisku sozialean egoteagatik Gizarte Zerbitzuen laguntza behar duen edozein talde.

*2. artikulua. Dirulaguntza gai izan daitezkeen jarduerak*

Dirulaguntzak ondorengo proiektuak finantzatzeko izango dira:

a) Gizarte-zerbitzuen arloan jarduera zehatzen garapena, hala nola, hitzaldiak, zabalkunderako kanpainak, formazio-ikastaroen antolaketa, biztanleriaren zenbait sektoreren aisialdia, elkartegintzaren sustapena.
b) Talde espezifikoak gizarteratzera zuzenduta dagoen populazioaren jarduera sustatzeko ekintzak.
c) Taldeekiko arreta, osasun- eta gizarte-zerbitzuen arloan.
d) Erakunde eskatzaileen mantenua, hala nola, telefonoa, faxa, bulego-materiala, zuzkidura txikiagoa, etab.

Ez dira onartuko honako gastuak: dietak, garraioa, hotelak, administrari lansariak, argindarra, tfno, ura, gasa, alokairua eta abar, beti ere elkartearen jardueraren oinarria ez bada.

*3. artikulua. Finantziazioa*

Horretarako, zenbateko hauek esleitu dira:

- 2.800 €, 1.0401.481.313.90.01 partidaren kontura

*4. artikulua. Betekizunak*

a) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroan inskribatuta egotea.
b) Jarduera-eremua Aretxabaletan edo inguruetan izatea. Gipuzkoa mailan aritzen diren elkarteen kasuan, Aretxabaletako eskariari erantzutea.
c) Irabazi-asmorik gabekoak izatea.
d) Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela.

**BASES ESPECÍFICAS POR LAS QUE SE ESTABLECEN LAS NORMAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN SERVICIOS SOCIALES.2014**

*Artículo 1. Objeto*

Podrán acceder a las subvenciones todas aquellas asociaciones o entidades sin ánimo de lucro, que centren sus actividades en Aretxabaleta y la Comarca. En su caso podrán optar las de ámbito territorial, cuando sus actividades superen el ámbito municipal y las necesidades o demandas no requieran la dotación de medios específicos en el municipio.

Además deberán desarrollar su actividad en el ámbito de los Servicios Sociales y su finalidad será el fomento de la participación, la promoción del voluntariado social, la solidaridad entre los ciudadanos y la atención a personas con problemas de integración e inserción social en uno o varios de los colectivos siguientes: infancia, juventud, mujer, minusvalías, tercera edad, minorías étnicas, exreclusos, transeúntes y cualquier grupo en riesgo social que precise de los Servicios Sociales.

*Artículo 2. Actividades susceptibles de subvención*

Las subvenciones se destinarán a financiar:

a) Dentro del área de servicios sociales el desarrollo de actividades específicas, como son: conferencias, campañas divulgativas, organización de cursos de formación, ocio y tiempo libre de ciertos sectores de la población, fomento del asociacionismo.
b) Actividades y/o acciones de fomento de la actividad de la población hacia grupos específicos para la integración de los mismos.
c) Atención a colectivos dentro del área de los servicios sociales y sanitarios.
d) El mantenimiento de las entidades solicitantes, entendiéndose como tales, teléfono, fax, material de oficina, equipamiento menor, etc.

No se admitirán gastos derivados de dietas, viajes,sueldos de administración, ni de luz, agua, tfno, alquiler de locales, etc a excepción de aquellas entidades que centren sus actividades en ello.

*Artículo 3. Financiación*

Para tales fines se han destinado las siguientes cantidades:
- 2.800 € a cargo de la partida 1.0401.481.313.90.01

*Artículo 4. Requisitos*

a) Estar legalmente constituidos.
b) Tener su ámbito de actuación en el municipio de Aretxabaleta o Comarca. Y en el caso del ámbito territorial atender demanda procedente de Aretxabaleta.
c) Carecer de fines de lucro.
d) Estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social y la Diputación Foral.

e) Aurreko urteetan udalak emandako diru laguntzak behar den moduan justifikatuta egotea.

*5. artikulua. Balorazio-irizpideak*

a) Entitate eskatzaileak esparru sozialean erakutsitako jarraipena eta egonkortasuna.
b) Aretxabaletako onuradun-kopurua.

c) Zailtasun sozialak dituzten herritarrei zuzendu, eta horien hobekuntza pertsonal, familiar edo bestelakoa dakarten zerbitzuak edo jarduerak eskaintzea.
d) Genero-ikuspegia txertatzea, proiektu guztian zehar; emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustzea.
e) Ekintzak Aretxabaletan egitea.
f) Elkarlana eta koordinazioa udal Gizarte Zerbitzuekin.

*6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak*

Eskaerak aurkeztu behar dira honako agiri hauekin:

a) Diru laguntza eskaera, eredu normalizatuaren arabera (I. Eranskina).
b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatuta egotea.
c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
d) Hazienda eta Gizarte Segurantzarekiko betebehar fiskalak eguneratuta daudela ziurtatzen duen agiria.
e) Banku nahiz aurrezki-entitate batek emandako agiria, entitate eskatzaileak horretan irekita duen kontu korronte baten titularra dela ziurtatuko duena (II. Eranskina).

*7. artikulua. Diru laguntzak ordaintzea eta justifikazio era*

Erabakian zehaztuko da ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako laguntzaren berezitasunen arabera.

Oinarri hauetan arautGutako dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inolaz ere, ez bakarka ez eta herri administrazioetatik zein erakunde pribatutatik jaso ahal diren beste dirulaguntza batzuekin batera, onuradunak garatu nahi duen proiektuaren kostua baino handiagoa izan.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuko %100 justifikatu beharko da, ez Aretxabaletako udalak emandakoa bakarrik, hala xedatzen baitu diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan.

Justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Diru laguntza jaso duen jardueraren xehetasunezko memoria (III. Eranskina).
- Beste diru laguntza eskabideen aitorpena (IV Eranskina).

Justifikatuko diren gastu guztiek diru laguntza jaso duen urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dira.

Kontzepturen batekin zalantzarik sortuz gero, erakundeari gastu horri buruzko zehaztasun gehiago aurkeztea eskatu ahal izango zaio.

*8. artikulua. Euskararen erabilera*

e) Haber justificado debidamente la ayuda concedida por este Ayuntamiento en años anteriores.

*Artículo 5. Criterios de valoración*

a) Continuidad y estabilidad demostrada por la entidad solicitante en el ámbito social.
b) Número de personas de Aretxabaleta que son beneficiarias.
c) Oferta de servicios o actividades de la asociación dirigidos a ciudadanos con dificultades sociales y que contribuyan a la mejora personal, familiar o de otra índole.
d) Incorporar la perspectiva de género a lo largo de todo el proyecto; fomentar la igualdad entre mujeres y hombres.
e) Desarrollo de actividades en Aretxabaleta.
f) Colaboración y coordinación con los Servicios Sociales Municipales.

*Artículo 6. Documentación a aportar*

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:
a) Solicitud de subvención conforme al modelo normalizado (Anexo I).
b) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco.
c) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.
d) Documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

e) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante (Anexo II).

*Artículo 7. Abono de las subvenciones y forma de justificación*

La resolución determinará el sistema de pago único o fraccionado, en función de las características de la ayuda solicitada.

El importe de las subvenciones reguladas en las presentes Bases en ningún caso podrá ser de una cuantía tal que aisladamente o en concurrencia con subvenciones y ayudas de otras administraciones públicas o privadas supere el coste del proyecto a desarrollar por el beneficiario.

Se deberá justificar el 100% del presupuesto de la actividad subvencionada y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento de Aretxabaleta, tal y como establece el artículo 30 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La justificación se realizará mediante la presentación de la siguiente documentación:

- Memoria detallada de la actividad subvencionada (Anexo III).
- Declaración de las ayudas solicitadas (Anexo IV).

Todos los gastos que se justifiquen deberán estar datados durante el año en que se haya concedido la subvención, y corresponder al proyecto objeto de subvención.
Si surge alguna duda en torno a alguno de los conceptos, se podrá solicitar información más detallada a la organización.

*Artículo 8. Uso del euskera*

Udaletxean aurkeztutako dokumentazioa (eskaera, memoria…) eta jardueraren ondorioz iragarri behar den edozein agiri edo idazkik euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du. Gauza bera gertatuko da bozgorailu edo antzeko tresnen bidez adierazitako mezuekin. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea aukeratzen denean, euskarari lehentasuna eman beharko zaio.

Toda la documentación impresa que vaya a ser presentada en el Ayuntamiento (solicitud de ayuda, memoria justificativa…) y publicada por la entidad, deberá estar redactada en euskera o en las dos lenguas oficiales, así como los mensajes emitidos por altavoces u otro medio similar. Cuando se opte por utilizar las dos lenguas oficiales se dará prioridad al euskera.